



## KONTU HARTZAILEAREN TXOSTENA

Aurrekontu orokorreko proiektua, 2020ko ekitaldian, **34.829.173,25 euro da**, Barne Antolaketaren batzordeak 2019ko azaroaren 27an diktamenean jasotakoaren arabera. Proiektu horretan sartuta dago bakarrik **Arrasateko Udalaren** beraren aurrekontua.

Bestalde, Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontuari dagokionez, nahiz eta oraindik udalak ez duen hartu desegiteko erabakia, KABIA foru erakundearen sartu baita, ez da egin aurrekonturik 2020ko urterako, ez duelako izango ezekin jarduerarik.

Udalaren beraren aurrekontua egin da aurrekontuari buruz indarrean dauden legezko xedapenei jarraituz. Aurrekontu kopuruak kalkulatzeko erabili diren irizpideei dagokienez, adierazi behar da:

Diru sarreretan abiatu gara, aurrekontuaren I, II, III eta V. kapituluetan, 2019an likidatutako eskubideen estimazio batetik, itxiera aurrerapeneko datuen arabera, kontuan hartuta zer aldaketa sartu diren 2020ko ordenantza fiskaletan (oro har % 0,6ko gehikuntza), Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko urriaren 1ean hartu zuen erabakiaren arabera, ekarri dute apurtxo bat gehitzea 2019an indarrean zeuden tarifak.

Diru sarreraren IV, VI, VII eta VIII. Kapituluetan, oinarri gisa hartu da une honetan daukagun informazioa, baita ere, beste erakunde batzuek hartutako diru laguntza konpromisoak (foru funtseko partizipazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazioaren arabera). Edozelan ere, hala badagokio, ekitaldian izan daitezkeen desbideratze negatiboak, batez ere Ondareak inorentzea (hirigintza kargak) -VI. kapitulutik datozenak, horiek baitaukate segurtasun faltaren maila handiagoa, aztertu beharko dira aurrekontuaren exekuzioa berrikusten denean eta, desbideratzearen tamainaren arabera, bereziki hura negatiboa izanez gero, oreka lortu beharko da aurrekontuan, edo gastuak murriztu, edo diru sarreraren beste partida batzuk handitu.

Gastuen atalean, adierazi daiteke aurrekontu kopuruak, printzipioz, behar bestekoak direla obligazio galdagarriak betetzeko, zerbitzuak normal jardutetik datozenak. Edozelan ere, 2020ko aurrekontuaren partidetan aurrekontu beharren eta aurreikuspenen artean izan daitezkeen aldeetarako, nire iritziz, aukera dago ere kreditu globala eta aurrekontuaren exekuzio oinarriak erabiltzeko (horiek ematen duten malgutasunez aurrekontuan orekarik eza erabakitzeke), eta horregatik pentsatzen dut behar beste tresna dagoela arazo handirik barik erabakitzekeo gastu desbideratzerik izanez gero ekitaldian.

Pertsonal kapituluaren gastuei dagokienez, jarraibide ta muga zehatzik ezean, estatuko arauditik datozenak (ezin da baietsi estatuko 2020ko aurrekontuak berariaz onartuko direnik), 2020ko udal aurrekonturako diru kopuruak kalkulatu dira, termino homogeenetan, gehikuntza barik lanpostuei eta ordainketei buruz, indarrean daudenak 2019an, baina kontsignaturik utziko da, erreserba funts moduan, gastu estimazio bat, lehen kapituluko aurrekontuan jasotako ordainketa guztien % 2,2koa, ekitaldian ordainketak onartuz gero, horiek berrikusteko erabakiak finantzatzeko.



Aurrekontuan ez da jasotzen mailegu berriak kontratatzea, 2020ko ekitaldiko diru sarreren eta gastuen aurrekontuak parekatu egin baitira.

Horren ondorioz, **bai betetzen dira aurrekontu egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu arauaren helburuak, ezarrita datozenak bai 2/2012 Lege Organikoan, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzkoa, bai garapeneko hurrengo lege araudian, 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, zeinak garatzen baitu finantza tutoretzako eskumena Gipuzkoako toki erakundeetako aurrekontu egonkortasunari eta finantza jasangarritasunari buruz, baita ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren instrukzioa, 2019/11/12koa, GAOn argitaratua 2019/11/14an, aplikatzekoa Gipuzkoako toki erakundeei, non helburu hauek ezartzen baitira 2020ko urterako:**

- **Aurrekontu egonkortasuna – zero defizita**
- **Zor publikoa** – mailegu bidezko zorrak 2020/12/31n ezin du gainditu 2020ko diru sarrera arrunten % 70aren muga.
- **Gastu araua** - ezin du gehitu % 2,8tik gora, 2019ko gastu konputagarriari buruz.
- Hiru helburu horiek egiaztatu behar badira ere kontu hartzailearen txosten baten bidez, bai 2020ko aurrekontuak onartzean, bai horiek aldatu eta likidatzean, 2020ko aurrekontuen likidazioaren testuinguruan lortzen diren konklusioek bakarrik erabakiko dute, hala badagokio, ekonomia-finantza plan bat egin eta onartzea, dagozkien neurriekin, urte batean lortu nahian itzultzea helburu horiek betetzeko egoera batera.

Aurrekontuak onartzeko fasean legez eskatu daitezkeen hiru helburuak (egonkortasuna, zorra eta gastu araua) bete egin diren edo ez egiaztatzea honekin batera doan txostenean ikusi daiteke.

Konpromiso kredituei dagokienez, 2020ko ekitaldiaren kontura onartutako konpromiso kredituak daude, 5.920.789,96 euroan, kreditu erreserbetatik datozenak, konpromisook hartuta “Juan Arzamendi Musika Etxea”ren proiektuaren kontratazio espedienteari dagokionez (oinarrituz kopuru adjudikatuetan), 219.344,73 euroan, Kulturola proiektua kontratatzeke espedientea, 1.397.102,54 euroan, Erguingo igogailuaren kontratazio espedientea, 2.298.527,36 euroan, eta Araba etorbidea urbanizatzeko kontratuaren espedientea, 596.950,33 euroan; Udaleko Osoko Bilkurak 2019ko maiatzaren 7an hartutako erabakitik datozenez aparte, AE 15.- Gautxori esparrua kudeatzeko hirigintza hitzarmenari buruzkoa, guztira 1.375.770,00 euroan. Kopuru txikiagoko beste konpromiso kreditu batzuk datoz urbanizazio jarduketa bateko dirulaguntza batetik, espazio pribatu batean erabilera publikoko zortasuna duena, 33.095 euroan. Halaber, aurrekontuko exekuzio arauak jasota dute aukera bat 2020an konpromisoak hartzeko, inbertsio proiektu jakin batzuetarako, geroko ekitaldien kontura, hori guztia baldin eta betetzen badira 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako toki erakundeen Aurrekontuen gainekoa, 22. artikuluan eskatzen dituen baldintzak, zeinak, besteak beste, ezartzen baitu etorkizuneko ekitaldi bakoitzerako indarrean dauden konpromisoen zenbateko pilatua ezingo dela izan azken ekitaldi likidatuaren eragiketa arruntengatik baliabideen % 25etik gora. Laburtuz, ikusita zenbaterainokoa den gaur arte onartu diren konpromiso kredituak, kontuan hartuta horien zati inportante batek (% 61,5) eragiten duela 2020ko aurrekontuan, 2020ko aurrekontuaren bidez bermaturik baitago hur finantzatzea, eta ikusita zer ezaugarri duten 2020an hartu behar diren konpromiso berrietarako kasuek, **ondorioztatu daiteke ez dela espero arazorik izatea udalaren gaitasun ekonomikoari buruz aurre egiteko konpromiso horiek finantzatzeari, etorkizuneko ekitaldien konturakoak.**



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Azkenik, adierazi behar dugu, aurrekontua onartzeko, Udalbatzaren kideen gehiengo soilaren aldeko botoa behar dela. Aurrekontua onartzeko hasierako erabakia hartuta, hura erakutsi beharko da jendaurrean, iragarritz lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta Udalbatzaren iragarki taulan, hamabost egunean, zeinetan interesdunek aztertu ahal izango duten eta haren aurka bidezkoztat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu.

Erreklamazioen bat jasoz gero jendaurreko aldian, horiek erabakiko dira hil bateko epean.

Horixe dut adierazteko, Arrasaten 2019ko azaroaren 28an

Kontu hartzailea

**2020ko AURREKONTUEN EGONKORTASUNARI BURUZKO HELBURUA - 2019/11/12ko jarraibideak - ZERO DEFIZITA**

KONTSOLIDATUTAKO GASTUEN I - VII KAPITULUEN BATURA	34.715.231,78 (*)
KONTSOLIDATUTAKO SARREREN I - VII KAPITULUEN BATURA	34.739.173,25 (*)
	<hr/>
<b>SARRERA ETA GASTUEN ARTEKO ALDEA ( 0, defizita ez edukitzeko)</b>	<b>23.941,47</b>

(\*) kalkuluak erraztearren, ez da KSE eraginetarako doikuntza esanguratzurik egiten

**2020rako ZOR MUGA HELBURUAREN BETETZE MAILA - 2019/11/12 JARRAIBIDEA - 2020ko ABEND. ZORRA ≤ 2020ko SARRERA ARRUNTEN % 70**

**2020KO URTE BUKAERARAKO BALIOETSITAKO ZORRA**

2020/1/1AN SINATUTAKO MAILEGUETATIK 2020/12/31AN AMORTIZATZEKO GELDITZEN DEN KOPURUA 10.298,12

2020KO MAILEGU BERRIA 0,00

**2020/12/31an AMORTIZATZEKE GUZTIRA** 

---

 **10.298,12**

**2020KO KONTSOLIDATUKO SARRERA ARRUNTAK (2020ko aurrekontuaren datuen arabera)** **34.739.173,25**

**% MAILEGUEN ZORRA / KONTSOLIDATUTAKO SARRERA ARRUNTAK** **0,03**

## 2020RAKO GASTU ERREGELAREN ARAUARI BURUZKO BETETZE MAILA

### A - 2019 URTEA (\*)

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (2019ko aurrek. Gastuen I -VII kapituluak)	35.334.933,56
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	500,00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 1.taula)	-2.278.937,00
- Udala-gastu arrunta	1.190.800,00
- Udala - Kapital gastua	76.500,00
- Iturbide	1.011.637,00
4. Exekutatu gabeko gastuen doiketa(**)	
<b>5. 2019rako GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>33.056.496,56</b>

### B - 2020 URTEA

1 .Kontsolidatutako enplegu finantzarioak (Gastuen I -VII kapituluak)	34.715.231,78
2. III.kapituluaren interesen doiketa (bakarrik maileguen interesak)	0,00
3. Beste administrazio publikoek finantzatutako gastuaren doiketa (ikus 2.taula)	-1.969.785,25
<b>2020RAKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>32.745.446,53</b>

**C -ONARTUTAKO GEHIKUNTZA %2,8 (2019/11/12ko Gipuzkoako araudia) 925.581,90**

**D- ARAUDI ALDAKETAN ONARRITUTAKO SARREREN GEHIKUNTZAK (\*\*\*) 0,00**

### E - 2020RAKO GASTU ERREGELA BETETZEN DELA EGIAZTATZEA

E.1.- 2019 DOITUTAKO GASTU KONPUTAGARRIA	33.056.496,56
E.2.- (+) %2,8 BAIMENDUTAKO IGOERA	925.581,90
E.3.- (+) ARAUDI ALDAKETETAN ONARRITUTAKO SARRERA GEHIAGOEN BATURA (***)	0,00
<b>E.4.- 2019RAKO GASTUAREN MUGA ARAUDIA BETETZEKO (1+2+3)</b>	<b>33.982.078,46</b>
<b>E.5.-2020RAKO AURREK.ARABERAKO GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>32.745.446,53</b>
<b>E.6.-2020AN GASTU ERREGELA BETETZEKO ALDEA (E.5 - E.4)</b>	<b>1.236.631,93</b>

(\*) 2018ko exekutatutakoaren estimazioa arabera- 2017ko txertatutako kredituen eragina

(\*\*) exekutatu gabeko doiketa ez da egiten kalkuluak erraztearren

(\*\*\*) fiskalizazioa igoera %0,6

## 1.TAULA - 2019AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK		1.190.800,00
- Diputazioa - partehartzea	5.000,00	
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.000,00	
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	29.000,00	
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00	
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000,00	
- Diputaz. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.000,00	
- E.J. -Gizarte mapako laguntza	90.000,00	
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00	
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	38.000,00	
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	100.000,00	
- E.J. - GLL	240.000,00	
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300,00	
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000,00	
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500,00	
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	17.000,00	
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00	
- E.J. - Bake epaitegia	5.000,00	
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.500,00	
- HABE - Euskaltegia	395.000,00	
- Diputazioa - Euskera	25.000,00	
- Diputación - Gazteria	13.000,00	
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	12.000,00	
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	125.000,00	
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	10.000,00	
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK		
- VII.Kap.		76.500,00
3- ITURBIDE		
- Ustiapenerako laguntzak - hitzartutako tarifak eta ezohiko ekarpena		1.011.637,00
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2019ko GASTUAK GUZTIRA		<hr/> <b>2.278.937,00</b>

## 1.TAULA - 2020AN BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO GASTUA

1- UDALA - GASTU KORRONTEAK	1.429.785,25
- Diputazioa - partehartzea	5.000,00
- E.J. - Kultur Ekintzak	5.600,00
- Diputazioa - Kultur Ekintzak	29.000,00
- E.J.- Kulturaterako liburuak	11.000,00
- E.J. - Liburutegien dinamizaziorako	3.000,00
- E.J. -Gizarte pertsonalerako laguntza	35.000,00
- E.J. - Gizarte mapako laguntza	100.000,00
- E.J. - Harrera Zerbitzurako laguntzak	7.500,00
- Diputazioa - Harrera Zerbitzurako laguntzak	8.000,00
- E.J. - Drogomenpekotasunerako laguntzak	38.000,00
- Diputazioa - etxez etxeko zerb.	140.000,00
- E.J. - GLL	243.000,00
- INE - Zentsuaren eguneraketa	300,00
- HAEE - pertsonal formakuntzarako laguntzak	12.000,00
- Diputazioa - Mendi garbiketa	500,00
- Mankomunitatea - Akeiko mantenua	9.000,00
- Mankomunitatea - UIEko kanpaina	8.000,00
- E.J. - Bake epaitegia	5.000,00
- E.J. - EBPNrako laguntza	32.500,00
- HABE - Euskaltegia	380.000,00
- Diputazioa - Euskera	19.000,00
- Diputación - Gazteria	10.000,00
- Diputazioa - Emakume arloko jardueretarako	16.000,00
- Lanbide -Enplegua sustatzeko laguntzak	140.000,00
- Diputazioa - igeriketa kanpaina	9.500,00
- Diputazioa - liburuen errekupeazioa	1.500,00
- Estatuko admon.-lan "R" bai programa	98.360,25
- E.J. -Arbigara proiektua	10.400,00
- Europar fondoak - Shrec proiektua	35.000,00
- Europar fondoak - Tec4companies proiektua	17.625,00
2 - UDALA - KAPITAL GASTUAK	
- VII.Kap.	540.000,00
4- BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK FINANTZATUTAKO 2020ko GASTUAK GUZTIRA	<hr/> <b>1.969.785,25</b>